



BAGARA, BAGAUDE

Aurten, urtero bezala, Maiatzaren 17a, LGTBQfobiaren Aurkako Nazioarteko Eguna aldarrikatuko dugu. Oraingoan aukeratu dugun lema "BAGARA, BAGAUDE" izan da.

Horri tira egiten jarrita, alegia, lemari, hitz jokoa erraza da. *Garena garelako gaude*, edota, *gaudelako gara* bezalakoak bururatzea ez da zaila. Baina, jokoak, hor bukatu beharko luke, hitzetan. Gu geu, LGTBQ+ kolektiboa osatzen dugun pertsonak, gure izana, ez baitira joko bat, ez baitaude jokoan.

Ez gara zisheteroarauaren nahiaren arabera jolaserako hizpide soil bat. Bagara, heteroarauaren inposizioaren gainetik, eta bagaude, heteroarauaren mugen gainetik. Horrek nahi, edo nahi ez.

Zoritxarrez, entzuten eta irakurtzen ari garenaren arabera, garai batean ohikoak ziren diskurtsoak indartsu bueltan datozela iruditzen zaigu. Zenbait posizionamendu politiko justifikatzeko erabiltzen ari diren diskurtsoez ari gara. Inoiz isiltzera iritsi ez ziren oihu haiek, adierazpen askatasunaren izenean, gorrotoa hedatzen ari dira berriz ere jendartean, gure harridura, kezka eta, zergatik ez, beldurrerako.

Bada, LGTBQfobia ez da iritzi bat, ez da "nik uste dut" bat. Gure izana, garena, ez da iritzi bat, errealitate bat baizik. Eta, horren aurrean, gure errealitatea ezkutatu eta ukatzen duten *iritziek* ez lukete tokirik eduki beharko. Besterik gabe, horren simple.

Halaber, behin eta berriz jasan behar dugu nola arauak, onartutako bakarrak, zisheterosexualitateak, zalantzan jarri behar duen zer, nola, zenbat, noiz eta non izan behar garen, bizi behar dugun edota sentitu behar dugun. Baina oker dago.

Kolektiboan badakigu, horrela bizi dugulako, gero eta ikusgaitasun gehiago lortu, gero eta gehiago izan eta gero eta gehiago egon, gure aurkako erreakzioa ere are nabarmenagoa dela. Gure egunerokoaren parte da LGTBQfobia, eta zurrumurru, *intenzio gabeko komentario* (gaur egun ezin da ezer esan, nolakoak zaren!) edota txantxa (broma da, ez horrela jarri!), irain edota jipoi itxuran jaso dezakegu. Eguneroko.

Izan ere, armairuan nahi gaitu arauak, ez gaituelako ikusi nahi. Traba egiten dugu, bai, deserosoak gara; "niri ez zait inporta norekin oheratzen zaren", "zergatik esan behar duzue?". Zeren, zisheteroarauaren arabera, horretara mugatzen da gure izana, honekin edo harekin oheratzera. Eredu pribatura mugatzen du arauak araua zalantzan jartzera ausartzen dena.

Baina, eremu publikoa, gurea ere bada. Eta, borroka horretan, LGTBQfobia seinalatu eta salatu egin behar da. Adibidez, kirol esparruan, non apenas hitz egiten den gai horri buruz. Horrela egin dute, estatu mailan, Vero Boquete eta Vicky Losada futbol jokalariek, besteak beste, *No las llamas chicas, llámalas futbolistas* liburuan eta Víctor Gutiérrez waterpolo jokalaria. Azken horren salaketa publikoak, gainera, estatuan LGTBQfobiagatik jokalaria bati ezarri zaion lehen zigorra ekarri du berarekin batera, bien arteko partida batean izandako jarrera homofoboagatik.

Kontua zera da, garena askatasunez izateko eskubidea dugula uste, pentsatu eta sinesten dugula. Askatasunez izan nahi dugulako eta askatasunean egon nahi dugulako. Horrenbesteko atrebentzia al da? Horrenbeste eskatzen ari al gara? Zein da planteamendu horren akatsa, ba?

Hortaz, LGTBQfobiaren Aurkako Nazioarteko Eguna begira, Maiatzaren 17a, hausnarketa bat egitea nahiko genuke. Izan ere, LGTBQfobiari buruz hitz egiten dugunean, jendartearen porrotari buruz hitz egiten ari gara oinarrian. LGTBQfobia ez da beldurra, besterik gabe, gorrotoa baizik. Eta askotariko jendarte batek ezin gaitu gorrotora eraman.

Aberastuko gaituen jendarte bat izateko borrokan, alertan mantenduko gara. Garelako, gaudelako.